



*Ajangizko Udala*

## **AJANGIZKO UDAL KORPORAZIOAREN KONSTITUZIO AKTA**

2007ko ekainaren 16an, lehenengo deialdian egindako Udalaren eratzeari dagokion akta.

Batzarreratuak/Asistentes:

LUIS CARBONELL OIARZABAL jauna  
JAVIER BERROJALBIZ BIDEGUREN jauna  
ANGEL LUIS URIBARRI GONDRA jauna  
MARIA ANGELES GOIKOLEA URIARTE andrea  
MIREN JASONE BERNAOLA AURREKOETXEA andrea  
ROMAN ETXEANDIA ZABALA jauna

Idazkaria:

SAIOA PINEDA ARANBURU andrea

Ajangizen, Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta zazpiko ekainaren hamaseian, eguerdiko hamabiak direnean, ekainak 19 ko 5/1985 Lege Organikoaren 195 artikulua eta Toki Erakundearen Erregimen juridiko eta antolamendu eta funtzionamenduari buruzko Araudiak 37 artikuluan xedatzen duen eran eta Ajangizko Udala eratzeko asmoz, goian azaltzen diren zinegotzi hautatuak batzartzen dira, aurretik bere Izendapen agiriak eta Udal Gorporazio kideen interesen Erroldan ezartzeko egoki diren aitorpenak aurkeztu dituztelarik.

Batzarrean ez da Beñat Erezuma Arisketa zinegotzi hautatu jauna aurkeztu.

Gernika Eskualdeko hauteskunde Batzordetik jasotako izendapen Agirietatik ezartzen den eran, zinegotzi hautesle adin nagusien eta gutxien dutenen artean, hau da Roman Etxeandia Zabala jaunak eta Maria Angeles Bastegieta Goikolea andreak eraturiko Adin Mahaia osatzen da, Lehendakari bezala adin nagusia duen Roman Etxeandia Zabala jauna arituko delarik, eta Idazkari bezala, Udalekoa dan Saioa Pineda Aranburu andrea.

Zinegotzi hautatuen gehiengoa agertzen dala aztertutik eta guztiengatik pertsonalki, zinegotzien obligazioak fidelki beteko ditzutela hitz emanez, zinegotziek euren karguak hartzen dituzte eta Mahaiak Udal Gorporazio barria osatutzat ematen du.

Ondoren, Alkate jaunaren aukeraketarako botaziora jotzen da. Aurkeztutako alderiak bi derenez, zerrenda bakoitzeko zerrenda buruak izango dira hautagai; hau da, Luis Carbonell Oiarzabal jauna, EAE-UPN taldeak eta Miren Jasone Bernaola Aurrekoetxea andrea, EAJ-PNV taldeak



**Ajangizko Udala**

Hautaketa botaziora eramanda, honako emaitza jaso da:

- Luis Carbonell Oiarzabal jaunak, 4 botu, bertaratutako EAE-ANVko zinegotzienak
- Miren Jasone Bernaola Aurrekoetxea andreak, 2 botu, EAJ-PNVko zinegotzienak

Jasotako emaitzak ikusita, LUIS CARBONELL OIARZABAL jauna Alkate izendatzen da, bere karguaren jabe egin eta kargua prometituz.

Alkate hautatuak hitz batzuk esan nahi ditu bertaratutako guztiei zuzenduta:

*"Euskal Herria momentu garrantzitsu eta zailak bizitzen ari da. Momentu garrantzitsuak zeren hainbat urtetan irauten duen gatazka politikoa konpontzeko aukeran gaude. Eta momentu zailak ere, gatazkaren ondorioak larria dira gizartearentzat: demokrazia urraketa, zenabit herritan udalen borondatea ez delako errespetatzen, indarkeri mota askotren erabilpena, e.a.*

*Konponbidea elkarrizketaren bidetik etorri behar du. Partidu politiko guztiak elkartu eta berba egin. Elkarri errespetoa edukiz, elkarri errurik bota gabe, errudunak danok izango ginateke.*

*Ajangizko Udalari begira, aurreko udalbatza guztiak saiatu diren bezala, gu ere saiatuko gara ahalik eta zerbitzu onenak eskaintzen herriari. Sentsibiltate politiko guztiak kontutan hartu behar dira. Herrian hiru alderdi politiko ditugu, bakoitza bere programa onarekin. Danon artean saiatuko gara, herriari programa on bat eskaintzen. Konponduko garelakoan nago.*

*Azkenik, Udala herritar guztiei zabalik dagoela, beren iritziak, proposamenak, kezkek, kexuak... ekartzeko. Saiatuko gara erantzuten".*

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da eguerdiko hamabiak eta hamar minututan, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, bertaratutako zinegotzi guztien sinadurarekin.

ADINEZKO MAHAIAK

IDAZKARIAK

ZINEGOTZIAK